

2009/09/17

Gernikako Bakearen Museoa "Bakearen 'mandala' egiteari ekin diote, herritarrek ausardia har dezaten"

Nazioarteak Tibet lagundu ezean, gure kultura, budismoa, desagertu egingo da Bakearen Museoak eta Donostiako (Gipuzkoa) Atisha kultur elkarte tibetarrak antolatuta, atzo, 12:30ak inguruan, monje tibetar bik bakearen aldeko 'mandala' egiteari ekin zioten Gernika-Lumon. Goizean egurrezko ohol batzuetan irudia prestatu ostean, berau kolorezko harearekin osatzen hasi ziren arratsaldean.

Bakearen eta Ez Biolentziaren Nazioarteko Egunaren harira antolatu du ekitaldi hori Bakearen Museoak. Hiru monje budista Euskal Herrian daude bi hilabetez monasterio budistak handitzeko proiektu bat sustatzeko.

Geshi Lobsang Trinlay India hegoaldeko Sermay monasterio tibetarraren monje nagusiak adierazi duenez, 'mandala' -k tibetarrez erdigunea eta inguratzen duena esan gura du. Ausardia hartzeko balio du 'mandala' -k, energia bereganatzeko.

Trinlayren esanetan, Gernika-Lumon egingo duguna bakearen aldeko 'mandala' da, eta honen bitartez Gernika-Lumok, Euskal Herriko herri garrantzitsuenak, energia, bakea eta armonia hartu ahal izango ditu. Asko sufritu du herri honek, bonbardaketan jende asko hil zen, eta orain, 'mandala' -ren bitartez, hemen bizi diren herritarrek desioak eskatu eta energia har dezakete.

Gernika-Lumon egoteaz pozik

Domekan, 13:00etan, 'mandala' desegin eta berau osatzeko erabilitako harea Errenteriako zubitik Oka ibaira botako dute monjeek. Herriak betirako energia duten lurrak eta urak izan ditzan botako dugu harea ibaira, azaldu du Trinlayk.

Gernika-Lumon egoteagaz pozik daudela adierazi dute monjeek. Ekitaldia ez dugu erabiliko gure erlijioa zabaltzeko. 'Mandala' honek Gernika-Lumoko herriari eta Euskal Herriari bake, energia eta armonia gehiago bereganatzen lagundu diezaiekete. Gerra gehiagorik ez sortzeko ere balio du.

Herritarrek 'mandala' sortzearen prozesua zuzenean jarraitu dezakete.

Domekara arte tibetarrak irudia egiten ariko dira Bakearen Museoan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Bihar eta etzi herriko ikasleek hurbiletik jarraituko dute sorrera prozesua.

Nazioarteak Tibet lagundu ezean, gure kultura, budismoa, desagertu egingo da Geshi Lobsang Trinlay ԑ- Monje tibetarra
Txinarekiko autonomia lortzea beharrezkoa dela uste du Trinlayk, budismoa zein Tibeteko herria mantentzeko.

Tibeteko familia errefuxiatu bateko semea, 1959an jaio zen Geshi Lobsang Trinlay India iparraldean. 23 urte daramatza monasterio budista batean bizitzen, eta aurten bukatu ditu filosofia budistako doktoretza ikasketak.

Zer da bakea zuretzat?

Bakea herriak askatasuna izatea da, bere kultura propioa, bere ikasketak eta pentsamendua garatzeko aukera izatea. Bakea ez da nahi duzuna egin ahal izatea. Gerra gehiago ez izatea, araua betetzea eta herriko ohiturak mantzentzea ere bakea da. Askatasuna izatea eta legea betetzea da bakea. Kultura tibetarrean barne bakea eta gizartearen bakea batera al doaz? Bake mota bi dira, elkarrekiko ezberdinak. Norbanakoak, barne bakea bilatzeko, bere kabuz pentsatu behar du, pazientzia gehiago izanez eta jakituria bereganatuz. Gorrotoa bezalako sentimenduak izanez gero ez duzu barne bakea kontrolatuko. Gizartearen edota lurraren bakeari dagokionez, garrantzitsuena gerrarik ez izatea da.

Zein da gaur egun Tibeteko herriaren egoera?

Tibeten baitan txinatar kolono asko daude eta herriak ez du bere erlijioa, kultura edota pentsamendua garatzeko askatasunik. Nazioarteak Tibet lagundu ezean, gure kultura, budismoa, desagertu egingo da. Herrialdea bera ere bai. Mundu osoan budista gutxi daude, eta garrantzitsuena Tibeten baitan mantentzen da. Bakerik eta kanpo laguntzarik ez badugu, laster desagertuko da budismoa. Filosofia budista ikasi nahi duenak lagundu egin behar digu. Gure kultura nazioarteko ondarea da.

Zein izan daiteke herria eta kultura mantzentzeko irtenbidea?

Dalai Lamak, Tibeteko herriaren liderrak, munduari eta txinatarrei politikoki ez die independentzia eskatzen, autonomia baizik. Honi ' bide erdia ' esaten dio. Horrela ez genuke arazorik izango Txinarekin eta herriak askatasuna izango luke. Hau onena izango litzateke herri bientzako. Txinak Tibetek autonomia duela esan du askotan, baina hori gezurra da. Tibetek ez du autonomiarik lortu.